Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero 398

Ekainak 1, 2021

“Ez nuke esango txakurrak gizakien lagunak direnik, familiako beste kide bat baizik”

Maider Atxukarro,
Guau Guau proiektua

2 Irun Atzo, Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Bioterra
5 Bidasoako Erlezainen Elkartea
6 Migratzaileak Bidasoan
7 Guau Guau proiektua
8 Kirolak: Iker Serrano
9 Kirolak: Nazioarteko kirola
10 Azken Portuko proiektua
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Konekta zerbitzua
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Caser Anaka – Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram – Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko ekainaren 5ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak biltzen ditu. Aldizkariaren 301. zenbakiko lehen idatzian "El Bidasoa" aldizkaria ideologia politiko desberdinen aurrean inpartziala eta independentea izan nahi duela adierazten da. E.R. kolaboratzaileak haurrek txoriak erasotzeko duten ohitura aipatzen du, gurasoek seme-alaben heziketan gehiago zaindu behar dutela ondorioztatu aurretik. Yole olerkariak Bekatu Kapitalen inguruko gogoeta plazaratzen du bere bertsoen bitartez. Jarraian, P. Sarasquetak San Juan plazako kasinoarekin loturiko pasartea kontatzen du, Irunen zozketa herrikoiak desagertzeko zorian daudela jakinarazteko.

Kirol kronikan hiriko futbol txapelketa eta Real Union taldeak jokatutako azken partiduetako emaitzen berri ematen da. Mañuelek erreferentzia egiten dio "Cosas que se pasan en Irun" atalean Arkalek aurreko zenbakian publikatutako artikulu bati, ostean emakumeen janzkeran zentratzeko. "Dulcinea del Toboso" izenordearekin sinaturiko idatzian, emakume batek gaztelutik gizon bat nola kanporatzen duen kontatzen du. Hurrengo idatzian Irunen etxebizitzaren arazoa geroz eta larriago dela azaltzen da, etxeak falta direla eta logela bat topatzea zaila dela salatzeko.

"Notas municipales" atalean azken udal bilkuran hartutako erabakien laburpena argitaratzen da. "Ecos de sociedad" atalean, berriz, hiriko biztanle aberats eta ezagunen ezkontza, bidai eta azken lorpenak biltzen dira. Azkenik, "Noticias" izeneko berri laburren atalean, Erromatik Madrilera bidean Irundik igaro den trena, Colón pasealekuan telefonia-sarea instalatzeko lanak eta udalekuetarako izen-emateak aipatzen dira, besteak beste, publizitatez betetako aldizkariaren azken orrialdeari lekua utzi aurretik.

Argazkiak:

10831: Neskak eskola jasotzen Gurutze Gorriko dispentsarioan.

61816: Ama Shantalen eta Korrokoitz kaleen arteko elkargunea 1976an.

38495: Merkatu plaza, gaur egun Genaro Echeandia, eskuinean merkatua ikusten da; ezkerrean, jende ugari, Alondegiaren, Udal Laborategi Kimikoaren, Udal Institutu Politeknikoaren eta San Luis Ikastetxearen egoitza izandako eraikinaren aurrean, garai hartan Freyre Jeneralaren kalea deituta.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Carlos Sánchez

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Lapurriturriko Informazio Guneak ekainaren 5ean ekingo dio denboraldi berriari

Lapurriturriko Informazio Guneak ekainaren 5ean, larunbatean, ekingo dio denboraldi berriari. Informazio Gunearen denboraldi hasiera aurkezteaz gainera, datozen hilabeteetako irteera eta txangoen zerrenda aurkeztu da.

Aurtengo kanpainan, informazio-gunea ekaineko lehen asteburutik urriaren 31ra arte irekita egongo da. Informazio-guneak larunbat, igande eta jaiegunetan zerbitzua eskainiko du, 10:00etatik 14:00 arte. Aurreko urteetan bezala, denboraldian informazio-guneari lotuta doako hainbat irteera antolatuko dira.

Gainera, denboraldi honetan berritasun gisa, Marrazketa eta Pinturako Udal Akademiak Lapurriturrin antolatuko du aire zabaleko bi ikastaroetako bat. Paisaian eta naturan interesa duten pertsona guztientzako bi saio izango dira eta parte-hartzaileei ez zaie inolako esperientziarik eskatuko. Aiako Harriko naturguneko hitzordua ekainaren 5ean izango da, eta bigarrena, berriz, ingurune urbano batean egingo da, ekainaren 12an. Hala ere, tailerretan izena emateko epeamaiatzaren 31n amaitu zen.

Borja Olazabal Garapen Jasangarriko ordezkariak azaldu duenez, «inguru pribilegiatu batean bizitzeko zortea dugu; izan ere, Irungo erdigunetik kilometro gutxi batzuetara natura betean murgildu gaitezke". Garapen jasangarriko ordezkariak azpimarratu duenez, Lapurriturriko informazio-gunea bertako eskaintza turistikoaren barruan erreferentea da. Izan ere, Aiako Harriko parke naturala bisitari eta etxekoen artean sustatzea eta ezagutaraztea ahalbidetzen du.

Lapurriturriko ohiko programazioari dagokionez, doako dozena erdi proposamen aurkeztu dira aurten, inguruko flora eta faunarekin lotuta. Izen-emateak, ohi bezala, jarduera baino egun batzuk lehenago irekiko dira, eta informazioa eskuragarri egongo da www.irun.org webgunean, nahi duenak kontsulta dezan. Jardueruk pandemiaren bilakaeraren mende egongo dira, ezarritako neurriak beteko dira (taldeen edukierak, etab.) eta, jakina, eguraldiari egokituko dira.

Besteak beste, ekainaren 19an historia eta natura nahasten dituen "Gudak eta Gotorlekuak" ekintza egingo da. Aranzadi Elkarteko Alfredo Morazek iraganeko gudu etan murgiltzeko aukera eskainiko du: Carlistadak, Espainako 1936ko Gerra Zibila eta Bigarren Mundu Gerran sortu zen Comète Sarearen istorioan, besteak beste. Jardueran hainbat puntu estrategiko bisitatuko dira, Lapurriturri-Erlaitz informazio puntutik abiatuta.

Borja Olazabal ordezkariak azpimarratu duenez, "natura eta aire zabaleko eremuak asko bisitatu ditugu guztiok konfinamendua amaitu zenetik, neurriak beteta. Horregatik, guztion artean jarraitu behar dugu horrenbeste maite ditugun eremuak zaintzen". Ildo beretik, ordezkariak gogora ekarri du Aste Santuko bisiten kopurua oso ona izan zela. 2020ko oporraldian 214 txangozale hurbildu ziren informazio-gunera, ordura arteko urteko sasoi horretarako marka gainditua, izan ere, 2019an 192 bisitari izan baitziren. Aurten berriro ere segurtasun neurri guztiak errespetatuko dira, eta, gainera, aurreko urteetako markak gainditzen saiatuko dira.

Udal Euskaltegiak udan Irunen euskara ikasteko aukerak eskainiko ditu

Udal Euskaltegiak Irunen udako ikastaroak eskaintzen ditu. Udako ikastaroak, printzipioz, aurrez aurreko eta urrutiko jarduna uztartuz eskainiko dira. Ikasle eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko prebentzio neurriak hartuko dira, eta izena emandako ikasle kopuruaren arabera, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira.

Uztaileko ikastaro trinkoa hilaren 5ean hasi eta 30ean bukatuko da, eta 9:00etatik 13:15era arteko ordutegia izango du. Abuztukoa, hilaren 2an hasi eta 27an bukatuko da ordutegi berarekin. Ikastaro trinkoen 69,40 eurokoa da, baina asistentzia eta aprobetxamendu ona duten ikasleek udalak euskara ikasteko ematen dituen bekak eskuratu ahal izango dituzte. Beken bitartez matrikula prezioaren %100a arte jaso dezake ikasleak.

Ikastaro trinkoetan interesa duten pertsonak maiatzaren 31tik ekainaren 10era Udal Euskaltegira (Urdanibia plaza, 5) hurbildu beharko dira. Euskaltegiko bulegoa goizez 10:30etatik 13:30etara eta arratsaldez 16:30etatik 19:00etara zabalik dago.

LANNAHI
Udalak, gainera, ikastaro trinko hauen data eta ordutegi berean doako ikastaroak eskaintzen dizkie ikasle langabeei LANNAHI programaren bitartez.

Interesatuek maiatzaren 31tik ekainaren 10era egin beharko dute izen-ematea SAC24h zerbitzuaren bitartez Irun Txartela edo beste ziurtagiri elektroniko batzuk erabiliz (NAN elektronikoa, IZENPE txartela). Hala nahi badute, HAZ-SACeko autozerbitzu terminalak erabili ahal izango dituzte horretarako (San Martzial kalea, 2).

Izena emandakoek mailaketa proba egin behar dute. Probak Udal Euskaltegian maiatzaren 31tik ekainaren 10era egingo dira, bulego ordutegian.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Bioterrak 50 jarduera baino gehiago garatuko ditu Ficoban ekainaren 4tik 6ra

Bioterra azokaren 18. edizioa ekainaren 4tik 6ra egingo da Ficoban. Irungo erakustazokan ekaineko lehen asterako antolatutako ekintzen egitaraua azokaren webgunean kontsulta daiteke. Urtero moduan, Bioterrak produktu ekologikoekin, bioeraikuntzarekin, energia berriztagarriekin eta kontsumo arduratsuarekin loturiko jarduerak proposatzen ditu.

Aurten adin nagusitasunera iritsiko da azoka eta sarrera doako izango da. Ateak ekainaren 4an, ostiralean, irekiko dira eta ekainaren 6ra arte goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara zabalik egongo da. Doako sarreraz gainera, bisitariek doako aparkalekua ere erabiltzeko aukera izango dute, edo Ficobatik 50 metrora dagoen Euskotren geltokia.

Hiru azoka egunetan zehar 50 ekintza baino gehiago egingo dira Ficobako pabilioietan eta ekintza horiek guztien egitaraua webgunean kontsulta daiteke jada. Era askotariko jarduerak antolatu dira Bioterraren 18. edizioa ospatzeko, hala nola hitzaldiak, tailerrak, erakusketak, jokoak eta zozketak. Era berean, aurretiazko izen-ematea behar duten ekintzen kasuan, adibidez, Yoga Day, webgunearen bidez izena emateko esteka gaitu da. Horrela, urtero moduan, Bioterrak planetarekin duen konpromisoa berrituko du.

Ekonomia zirkularrean zentratuta

Hitzaldiak azokako ekintza nagusietako bat izango dira eta ekonomia zirkularra ardatz izango dute. Munduko Bankuak ohartarazi duenez, ezer aldatzen ez bada eta biztanleriak eta kontsumoak orain arte bezala hazten jarraitzen badute, 2050ean hiru Lur planeta beharko dira gizateriak bizirik irauteko. Izan ere, baliabide naturalen gehiegizko ustiapenak eragin negatiboa du ingurumenean, eta baliabide horiek gero eta urriagoak eta garestiagoak dira.

Zehazki, honako lau ikuspuntuetatik landuko da ekonomia zirkularra: kontsumoa, ehungintza, elikadura eta energia. Bioterraren edizio berri honetan parte hartuko duten adituek honako gaiak landuko dituzte: osasuna, bioeraikuntza, ingurumen krisia, toxikorik gabeko kosmetika, trantsizio energetikoa, autokontsumoa, ozeanoen zaintza eta birziklapena.

Eraldaketa martxan dago eta Bioterrak ikusgaitasuna eman nahi dio. Aldatzeko unea da, ekoizpen eredu zirkular baterantz biratzeko unea. Erabilera bakarreko produktuak baztertzea eta balio-katean arreta jartzea: materialen hautaketan, produktuaren diseinuan, energia kontsumoan, banaketan, konponketan eta berrerabileran, ekoizpen prozesuaren zirkuitura itzul dadin eta zirkulua itxi dadin.

Segurtasuna nagusi

Gainera, Ficoban egiten diren ekitaldi guztietan bezala, Bioterran ere hainbat neurri hartuko dira azokan parte hartzen duten guztiei ahalik eta prebentzio eta segurtasun berme handienak eskaintzeko. Higiene eta osasun neurriez gain, espazioen antolamendua eta mugikortasuna birpentsatu dira, hala nola korridore zabalagoak prestatu dira, 8 metrora artekoak. Bioterra Euskadiko ekitaldi jasangarri garrantzitsuenetako bat da, izan ere, azokak Ficobako hiru pabilioiak eta erakusketako kanpoko eremuak hartuko ditu. Halaber, edukierak eta segurtasun distantziak modu arinean kudeatzeko, aurten online sarrera sistema bat aukeratu da, azokaren webgunean esku ragarri dagoena. Gainera, Ficobaren webgunean edo ekitaldiaren webgunean jende gutxien biltzen duten ordutegiak kontsulta ahalko dira.

Ontziak aurreztea helburu

Bestetik, Bioterra ikusteko, parte hartzeko, ukitzeko eta plater eta edari osasungarriak dastatzeko lekua da. Bertako kontsumoa geroz eta jasangarriagoa izan dadin, edalontzi eta katilu berrerabilgarrien zerbitzua jarri da bisitarien eskura sistema erraz baten bitartez. Azokako hiru egunetan erabili eta botatzeko 2.000 katilua eta edalontzi erabiltzeari uztea espero da. Ekimenarekin bat egin nahi duten bisitariek 4 euroko gordailua ordaindu beharko dute behar bezala seinaleztatuta egongo diren lekuetan. Bi aukera izango dituzte: edari beroentzako tapa duen katilua eta edari hotzentzako edalontzia. Bioterrara bisita amaitutakoan, edalontzia edo katilua itzuli beharko dute eta gordailua itzuliko zaie. Irrisarri enpresak bultzatutako ekimena da, eta dagoeneko kikara berrerabilgarriak gordetzeko zerbitzua Euskal Herriko hainbat herritara zabaldu du.

Antolakuntza Batzordean kide berria

Testuinguru horretan, Bioterraren Antolaketa Batzordeak kide berria du: Bilibin Circular aholkularitza enpresa, ekonomia zirkularra aktibatzen duena. Bilibin Circular enpresa eta lurraldeetako hondakinak modu errentagarrian murrizteaz arduratzen da.Horrela, Bilibinek bat egin du Bioterraren Batzorde Antolatzaileko kideekin: Ekolurra (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua), GEA (Azterketa Geobiologikoen Elkartea), BLE (Iparraldeko Nekazari Ekologikoen Elkartea), Gipuzkoako Foru Aldundia, Zuhaizpe (Vital Osasun Zentroa), Nasei (Belleza Gunea), COAVN (Arkitektoen Elkargo Ofiziala) eta Arkmonia (Arkitektura Estudioa). Era horretan, antolatzaileak, klima aldaketaren ondorioen aurrean entzungor jarraitu ordez, aukera bakarra aldaketan dagoela erakusten ahaleginduko dira.

Iñaki Bengoetxea, Bidasoako Erlezainen elkarteko kidea:

"Gure eztiarekin Euro Hostoaren logotipo ekologikoa lortzeko prozesua hasi nahi dugu"

Duela 25 urte sortu zen Bidasoako erlezainen elkartea, eskualdeko erlezainak batu eta erlezaintzarekiko zaletasuna indartzeko helburuarekin. Iñaki Bengoetxea elkarteko kideak azaldu duenez, Bidasoako eztiaren ekoizpenean urrats berri bat eman nahi da Euro Hostoaren logotipo ekologikoa lortzeko.

Noiz sortu zen Bidasoako erlezainen elkartea?

Meakan bazen Prudentzio Urkia izeneko erlezain bat eta berarekin beste erlezain batzuk elkartu ziren, horien artean nire osaba, Patxi Aizpiolea. Horrela, Bidasoko erlezainak elkartzeko leku bat bilatzen genuen, eztia ateratzeko toki bat izan ahal izateko. Gazteak ginenean ia baserri guztiek sagarrak, erleak eta eztiak izan ohi zituzten. Industrializazioarekin dena pikutara joan zen eta ohitura berreskuratzea erabaki genuen. Erlezainen elkarteari Bidasoko izena jartzea erabaki genuen Etxalar, Lesaka, Hondarribia eta Pasaiako erlezainak elkartzeko. Beraz, 25 urteren ostean hemen jarraitzen dugu.

Gaur egun zenbat kidek osatzen duzue elkartea?

Egun 25 edo 28 kide inguru izango garela uste dugu. Izan ere, kide berriak sartzen diren bitartean, bidean adineko beste kide batzuek elkartea uzten dute. Hala ere, 25 kide ingururekin hor mantentzea lortzen dugu. Onena bakoitzak bere eztia egiten duela. Egun horretan elkartearen egoitzan bakarrik gaude eztia ateratzen. Bertan eztia atera, ontziratu eta etiketatzeko beharrezkoa den guztia dugu. Elkarte izaerak bakoitzari gure eztia ateratzeko aukera ematen dio, gure izenarekin eta osasun-erregistroko neurriak bete ahal izateko.

Zein da eztia sortzeko prozesua?

Hemen gehienek ez dugu erleen transhumantziarik egiten. Nik adibidez erleak nire sagastietan dauzkat, beraz, urte osoan zehar hemen egoten dira. Hortaz, lehengo estiloari eusten diot, erleek bertako materiala aprobetxa dezaten. Aurten arkazia aprobetxatu dute, sagastientzat oso udaberri ona izan da eta gaztainondoak ere ondo aprobetxatzea espero dut. Bertan sortutako eztia bertan elaboratzeko formula bat sortu dugu. Oso gutxi dira haien ezti propioa elaboratzen duten elkarteak.

Eztia ekoizteko tresneria elkartean partekatzen duzue?

Bai, bestela, ia ezinezko litzateke ekoizle bakoitzak eztia

"Bertan sortutako eztia bertan elaboratzeko formula bat sortu dugu"

"Elkarlaguntza da ikasteko modurik onena"

egiteko behar diren tresna guztiak izatea. Eztia jasotzerakoan hezetasuna neurtu behar zaio. Hortaz gain, ateragailua, umotegia eta bestelako tresneriak gordetzeko leku bat behar da. Etxebizitza batean hori guztia gordetzea ezinezkoa da eta eztia txukun egiteko espazioa behar da. Orduan, elkartearen bitartez prozesua asko erraztea eskertu dugu eta jende gazteari elkartera batzera erraztu nahi diogu.

Beraz, Bidasoa inguruan erleekiko zaletasuna dago?

Urte batetik bestera elkarteko bazkide kopuruari eustea lortzen diogu. Tarteka erlezaintzaren munduan murgildu nahi diren gazteak hurbiltzen zaizkigu. Orain pausu berri bat emateko bidea hasi nahi dugu eta elkartean eztabaidatu behar dugu. Ekoizleek bertako erleak erabiltzen ditugula aprobetxatzeko, gure eztiarekin Euro Hostoaren logotipo ekologikoa lortzeko prozesua hasi nahi dugu. Horrela, nahi duenari identifikazio bat gehiago izateko aukera eskaini nahi diogu, bezeroek hemengo erleekin lan egiten dugula jakin dezaten. Pausu hori emateko saiakera bat egin behar da. Ezti naturala da, tratamendu naturalekin lantzen dena eta ahalegin hori aitortzea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Eztia saldu ahal izateko baimen asko lortu behar dira?

Ez, gure kasuan gainera sagardoarekin prozesu berberak jarraitu ohi ditugunez ohituta gaude. Baimenak kudeatzen dituen elkartearen kontaktua dugu, eta urratsa eman nahi duten ekoizleen prozesua errazten saiatu nahi dugu. Zigiluak konfiantza transmititzen du, eta Irungo jendeari erleak bertakoak direla ezagutzen lagunduko diola uste dugu. Eztia elikagai osasungarria da, propietate osasungarriak ditu, ezti motaren arabera aldatzen direnak eta jendeak horiek ezagutzea nahi dugu.

Liztor asiarrak kalteak eragiten dizkizue oraindik?

Borrokarik handiena hor dugu oraindik, ez baitugu horientzako antibiotikorik. Aurten goiz mugitu dira eta erregina asko erori diren arren, uste dut hala ere liztor asko izango direla. Negu-pasa laburra izan dute eta erleak bizirik atera arren, asko ahultzen dizkigute. Europako hainbat lekutan zabaldutako arazoa da, beraz, ea laster egoera kontrolatzeko konponbidea topatzen den indar gehien duten tokietan ahultzeko.

Zeintzuk dira urtean zehar eztiaren ekoizpenerako data garrantzitsuenak?

Hemen inguruan jendea goiz samar hasten da eztia biltzen, erleek jan ez dezaten. Nik aldiz, lege zaharrari jarraituz San Migeleko bezperara, iraileko amaierara, itxaroten dut, osabak egin ohi zuen moduan egiteko. Agian kilo batzuk gutxiago bilduko ditut, baina lana dibertsifikatzea eta erleek polinizazioan laguntzea nahiago dut. Azken finean, bakoitzaren erabakia da. Momentuz erleak oso indartsu daude eta lanean gogor hasi direla dirudi. Altzak, hau da, kutxak guretzako betetzen hasi dira.

Bidasoan aurrerantzean erlezainen tradizioa iraungo duela uste duzu?

Zeharka bada ere, bertako produktuei garrantzia ematen hasi garela uste dugu. Kontsumitzaileek gero eta gehiago baloratzen dute gertutasuna eta ekoizle gazteak ere horretaz ohartu dira. Orain dela 20 bat urte Bidasoan erlezaintza egoera okerragoan zegoen. Orduan erleak zeuzkaten gehienak adinekoak ziren. Orain, ordea, jende gaztea gaiarekiko interesa erakusten hasi da eta guk dakigun guztia erakusten ahalegindu beharko gara. Niregana gazteren bat ikasteko gogoz hurbiltzen bada, pozik lagunduko diot. Azken finean, elkar laguntza da ikasteko modurik onena.

Bidasoa ibaia iragaitzazko migratzaileentzat amu bihurtzen denean

Argazkia: Irungo Harrera Sarea

Argazkia: Irungo Harrera Sarea

Argazkia: Irungo Harrera Sarea

Maiatzaren 22an gizon beltz baten gorpua topatu zen Bidasoa ibaian. Irungo Harrera Sarearen hipotesien arabera, bidaia jarraitu nahian ibaia zeharkatzen saiatu zen migratzailea zen. Gertakaria jazo aurreko asteetan hiritar sareak horrelako zerbait gerta zitekeela ohartarazi zuen. Maiatzaren 29an, berriz, iragaitzazko migratzaileek eskualdean bizi duten egoera salatzeko manifestazio jendetsua antolatu zen.

Ertzaintzako agenteek eta suhiltzaileek maiatzaren 22ko goizean Bidasoa ibaitik, Santiagoaurrea uhartetik, gizon baten gorpua atera zuten. Hendaiako suhiltzaileek muga ibaitik zeharkatzen saiatu zen gizon beltza zela baieztatu zuten. Datu horiekin, Irungo Harrera Sarearen hipotesi nagusia bidaia jarraitu nahian iragaitzazko migratzaile bat zela da. Gainera, goiz berean Hendaiako Intzura auzoko bizilagunek ibaitik 16 urteko mutiko beltz bat erreskatatu dute. Mutikoak indarrak berreskuratu ostean bere bidearekin jarraitu du. Bi orduren buruan, ordea, Irungo Harrera Sareak salatu duenez jendarmeek kanporaketa ilegala ezarri diote, adingabe eta migratzaile izateagatik dituen eskubideak urratuz.

Gertakari horiek jazo baino 24 ordu lehenago, Irungo Harrera Sareak prentsaurrekoa antolatu zuen maiatzaren 29an Irun eta Hendaia artean egin zen manifestazioa aurkezteko. Sareak hilabete amaierako elkarretaratzearen urkezpenean eta aurreko agerraldietan migratzaileen aurkako jazarpena salatzeaz gainera, ibaia zeharkatzen saiatzeak duen arriskuaz ohartarazi zen. Irungo Harrera Sareak egoera salatu zuen azkenekotik 24 ordu igaro ostean, lehen heriotza jazo da.

Jose Antonio Santano Irungo alkateak, gertatutakoaren xehetasunak argitzeko zain, bere tristura agertu zuen. Alkateak udalaren esku dauden baliabide guztiak eskaini zituen. Zentzu horretan, Josu Erkoreka Segurtasuneko sailburuarekin hitz egin zuen, koordinazioan eta lagungarria izan zitekeen udal-laguntza eskaintzeko. Santanok "guztion hausnarketa sakona" eskatu zuen "etsipenak pertsona horiek bizitza arriskuan jartzera eta, tamalez, oraingo honetan bezala, galtzera, eraman ez ditzan eta konponbide eraginkorrak bilatzeko".

Erantzukizun eske

Iragaitzazko migratzailearen heriotzaren ostean, Irungo Harrera Sareak hurbileko erakunde publiko guztiei migrazio eta harrera erantzukizunak hartzea eskatu zien. Era berean, instituzioak interpelatu zituzten eskubideak sistematikoki urratzen dituen muga horri irtenbidea eman eta behar dituzten instantziekin harremanetan jartzeko.

Maiatzaren 25ean Azken Portun, gorpua aurkitu zen tokian, elkarretaratzea egin zen. Horrela, Irungo Harrera Sareko kideek adierazi dutenez, "erakunde guztiei exijitzen diegu, gertukoenetatik hasita, pertsonak hiltzera bultzatzen duten kontroleko migrazio-politikak aplikatzeari uzteko, Migrazio Ministeriotik eta Europako instantzietaraino iritsiz". Are gehiago, Irungo Harrera Sareak iragaitzazko migratzailearen heriotza dela eta zabaldutako komunikatuan beste migrazio- eta harrera-politika batzuk posible direla aldarrikatu du.

Maiatzaren 29ko manifestazioa

Maiatzaren 29an arratsaldeko 17:00etan Irungo Harrera Sareak deitutako bi manifestaldi abiatu ziren, bata Irungo udaletxetik eta, bestea, Hendaiako herriko etxetik. Bi manifestazioek Hendaiako atxikitze zentroan bat egin zuten, ondoren, Santiago zubirako bidea hartzeko.

Manifestazioen bitartez mugaren itxiera gogortu dela, migratzaileek geroz eta modu okerragoan bidaiatu behar dutela eta Bidasoalden egiten zaien harremanak ez dituela migratzaile guztiak eta behar bezala hartzen salatu zen. Ficobako lautadan, elkarretaratze jendetsuaren amaieran, bertan bildutako politikari eta erakundeetako ordezkariei pertsonen bizitza hobetzeko lan egitea eskatu zieten.

Hiritarrei manifestazioan parte hartzeko deialdia zabaltzeaz gainera, manifestua sinatzeko atxikimendua eskatu zuten. Manifestazio jendetsuaren bitartez argi gelditu zen asko direla hurbileko institzioei eta mugetako kudeatzaileei beste migrazio eta gizarte politikak eskatzen dituztenak.

Maider Atxukarro, Guau Guau proiektuko kidea:

"Gelaguau proiektua hemen inguruan garatu ahal izateko ikastetxeren bat animatzea nahiko genuke"

Guau Guau adingabeen artean txakurreriko elkarrekintzan oinarrituta gizarte-trebetasunak sustatzeko eta hobetzeko proiektua da. Dena den, nerabeez gainera, Guau Guau elkarteak haur eta familiekin loturiko zerbitzuak proposatzen ditu eta www.guauguau.eu webgunean kontsulta daitezke. Maider Atxukarrok Guau Guau elkarteak bultzatutako ekimenak azaldu ditu.

Nola bururatu zitzaizuen Guau Guau proiektua martxan jartzea?

Guau Guau 2020an sortutako talde bat gara. Proiektuaren ideia Donostiako Gizarte Zerbitzuetan piztu zen. Bikote baten ideia izan zen eta talde moduan atera ginen bertatik. Egun lau pertsonek osatzen dugu elkartea. Hainbat programa eskaintzen ditugu, Guau Guau programarekin aurrera jarraitzeaz gainera.

Psikologo terapeuta zarenez gero, noiz ohartu zinen txakurrekin lan egiteak gizakiengan izan ditzakeen onurez?

Donostiatik Iruñera joan nintzen abegi-etxeetan lan egitera. Lan txandetan txakurra nirekin eramaten nuen eta emaitza onak jasotzen hasi nintzela ikusi nuen. Zerbait berezia zegoela sumatu nuen eta txakurrarekin txandetara joaten jarraitzea erabaki nuen haur eta gazteen erantzun anitzak antzeman nituen. Lehen esperientzia horien ostean Virginiarekin elkarlanean hasi nintzen eta elkarrekin txakurrek gizakiak laguntzeko zeuzkaten trebetasunez ohartu ginen. Donostiara itzuli nintzenean taldeekin eta familiekin gauzak probatzen jarraitu nuen. Nire koordinatzaileari urte luzez proiektua benetan martxan jarri ahal izateko baimena eskatzen ibili nintzen eta, horretarako garaia ez zela eta hainbat ezezkoren ostean, baiezkoa eman zidan azkenean. Horrela, Ana Masoliver txakur-hezitzaile paregabearen kontaktua lortu nuen eta berarekin proiektua martxan jarri nuen. Berak txakur taldeak sortu eta nerabeekin topaketak antolatzen hasi ginen. Oso pozik gaude orain arteko ibilbidearekin.

Proiektuaren hasiera konplexua izan zen?

Bai, txantxetan gure burua kamikazetzat dugu. Batez ere, hasiera zaila izan da programa gehienak taldekako ekintzetan antolatuta geneuzkalako. Dena den, berrogeialdian zehar gure bizitzek izandako atsedenaldia aprobetxatuz, guztia ondo pentsatu, finkatu eta sakontzeko aukera izan dugu.

Guau Guau proiektuaren atzean txakur eta gizaki talde handia duzue?

Bai, bestela, ezinezkoa litzateke hau guztia sortzea eta martxan jartzea. Nik kameraren aurrean aurpegia jartzen dut, baina atzetik taldea daukat eta haiek gabe ezingo nuke ezer egin, hori argi eta garbi utzi behar dut.

Guau Guau proiektuak eskaintzen duen programetako batek haurrekin lotura estua du, ezta?

Gelaguau izeneko programa da eta eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen ditugu. Lehen Hezkuntzako haurrentzat pentsatutako jarduera da, hau da 6 eta 9 urte artekoentzat. Beste edozein eskolaz kanpoko ekintzen moduan, Gelaguau programaren izena ematea eskatzen da eta astean behin saioak izango ditugu. Saio horietan sentimenduak identifikatzen ikasiko dugu. Txakurrak beraien artean nola komunikatzen diren aztertuko dugu eta zein trebetasun dauzkaten ikusita, guk zer ikas dezakegun ikusiko dugu. Gelaguau proiektua hemen inguruan garatu ahal izateko ikastetxeren bat animatzea nahiko genuke.

Urbanguau programa orain dela gutxi estreinatu duzue?

Bai, Urganguau programaren lehen taldea pazko-astean sortu genuen. Aurtengo udararako Urbanguau programarekin loturik zerbait antolatu dezakegun aztertzen ari gara eta hiriko kanpaldiak izango lirateke. Hau da, haurrak goizetan jasoko genituzke eta jolasen bitartez txakurrek zer-nolako zentzumenak erabiltzen dituzten ikasiko genuke, gure erabilerarekin alderatzeko.

Urbanguau programaren lerro beretik, Campinguau programa duzue, ezta?

Campinguau programa gaua kanpoan igarotzeko pentsatuta dago. Pandemia garaian horrelako ekintzak antolatzea konplexuagoa denez, Campinguau programa momentuz geldirik dugu. Uste dugu, egoerak hobera egiten badu, zerbait antolatzeko aukera izango dugula.

Familiguau programan, aldiz, familia osoa inplikatzen duzue?

Bai, hori da. Programa honetan parte hatzeko familiak txakur propioa izan dezake edo, bestela, gure txakurretako batekin lan egingo genuke. Alde batetik, txakurrak berak edozein arazo izan dezake. Bestela, familian zerbait arraroa nabaritu ostean, gurekin harremanetan jar daitezke, elkarrekin arazoa non dagoen identifika dezagun. Horretarako, txakurra guk eramaten dugu arazorik duen ikusteko eta, arazorik aurkitu ezean, familiarekin lan egiten hasiko ginateke harremanean arazoa non dagoen identifikatzeko. Behin arazoa identifikatuta, txakurrarekin lantzeko eta arazoari konponbide bat bilatzeko aukera eskaintzen diegu familiei, erabakia norberak hartu behar baitu.

Voluntaguau programak proiektuaren alde solidarioena adibide da?

Bai, Voluntaguau beste programa eta elkarte bat da. Orain arte bertan bi taldek osatzen dute, bata Donostiakoa eta, bestea, Iruñekoa. Bertan nerabeak elkartu eta Gareserainо doaz hainbat ekintzen bitartez haien ibilbidea eraikitzen dute.

Orain arte proiektuak izandako emaitzekin pozik zaudete?

Gure programetan parte hartu duten pertsonak oso pozik azaldu dira lortutako emaitzarekin. Aurretik aipatu dudan moduan, Donostiako baliabidea oso interesgarria eta baliagarria izan zen guretzat, zer-nolako emaitzak lortu genitzakeen erakutsi zigulako. Oraintxe bertan Voluntaguau eta Familiguau programetan parte hartu duten pertsonen balorazioak berriki jasotzen ari gara eta guzti-guztiak poz-pozik daudela esan dezakegu, beraz, proiektua martxa polita hartzen ari da.

Beraz, Guau Guau proiektuak txakurrak gizakion lagun onenak direla erakutsi du?

Bai, inolako zalantzarik gabe hori horrela da. Are gehiago, ez nuke esango txakurrak gizakien lagunak direnik, familiako beste kide bat baizik.

Iker Serranok Bidasoako taldeari agur esan dio denboraldi amaieran

Bidasoak Sacyr Asobal Ligako txapeldunorde postua lortu du. Iker Serrano Bidasoko kapitainak hurrengo denboraldian kluba utziko duela iragarri zuen martxo amaieran. Fraikin Granollers taldearen aurka azken partidua jokatu aurretik, jokalari urretxuarrak talde irundarrean orain arte izandako ibilbidea errepasatu du.

Granollersen aurkako neurketa Bidasoarekin Artalekun jokatuko duzun azken partidua izango da, ezta?
Bai, egia esan, pena ematen dit Bidasoarekin jokatuko dudan azken partidua izango delako. Oraindik erronka polita dugu aurretik. Granollersen aurkako partidua presio handiko partidua izango da. Gu haiek bezala oso talde ona gara eta orain arte taldeak kluba egoera onean dagoela erakutsi du, nahiz eta aurreko partiduan Cuencako taldearen aurka galdu.

Hurrengo partidua irabazteak garaipenak ligako bigarren postua ziurtatuko luke?
Orain dela 2 urte garaipen hori lortu genuen eta izugarrizkoa izan zen. Aurten osasun krisialdiak baldintzatutako urte berezia da, baina momentuz ondo goazela uste dut. Zorte oneko bolada daude eta uste dut denboraldian zehar hainbat bolada on izan ditugula. Granollersen aurkako partidua gutako askorentzat azken partidua izango da eta, gainera, Artalekun jokatuko dugu, beraz, oraindik bereziagoa izango da. Era berean, arerioarengatik ere partidua berezia izango da, Granollers gure atzetik dabilelako, baina oraindik hiru partidu jokatu behar ditu. Hala ere, igande arratsaldean bigarren postu hori gure egitea espero dugu.

Zure agurraz gainera, Sergio de la Saludek eta Adrian Crowleyek ere taldea utziko dutela iragarri dute?
Bai, belaunaldi aldaketa bat izan daiteke. Baliteke klubak horrelako zerbait behar izatea, izan ere, aurten adinaren bataz bestekoa igo dugu eta esperientziaren aldeko apustua egin dugu. Klubak eta taldeak odol berria behar dutela uste dut eta gu Bidasoakoak izango gara beti. Naturaltasunez hartutako erabakia izan da eta erabaki onena izatea espero dugu.

Bidasoan klubaren bigarren taldetik eman zenuen jauzia, ezta?
Bigarren taldearekin Lanzaroten nengoela deitu ninduten hegazkin bat hartu behar nuela esanez Bartzelonako taldearen aurka jokatzeko. Bat-batean niretzat idoloak izan jokalarien aurka jokatzeko deitu zidaten, beraz, egun oraindik ilusioz gogoratzen dudan zerbait da. Hala ere, jada aspaldiko kontua da eta horren ostean Bidasoarekin beste hamaika bataila bizi izan ditut, beraz, oso urruti ikusten dut.

Bidasoara itzuli zinenean, taldea egoera konplexuan aurkitu zenuen?
Lehenengo bi urteak zailak izan ziren, bigarren mailatik lehen mailara igotzea lortu genuelako. Dena den, denboraldi-aurre horietan parte hartu zuten kirolariak goraipatu nahiko nituzke, izan ere, Asier Aranburu eta etxeko beste jokalarien lanari esker lortutako zerbait izan zen. Klubaren desagerpena saihesteaz gainera, berriro ASOBALera itzultzea lortu zuten eta. Nire momentua iritsi zela uste nuen eta taldera itzuli nintzen lehen bi urteetan uste dut asko lagundu nuela, nire profesionaltasuna eta esperientzia aintzat hartuta.

Orain dela bi urte txapeldunorde titulua lortzea izugarria izan zen, ezta?
Bai, amets bat izan zen. Klub batek fitxatzen zaituenean eta talde batean jokatzen hasten zarenean, beti horrelako zerbaitekin amesten duzu. Hau da, Artaleku beteta ikustea eta zure izena nola oihukatzen duten entzutea. Azken finean, amets txiki eta politak dira eta azkenean errealitate bihurtzea lortu genuen. Taldean etxeko jende asko ginen eta identitate aldetik ohore bat izan da. Gure aurrean genuen aukera ikusteko gai izan ginen eta gutxi dira aukera hori izan duten jokalariak.

Bidasoak oraindik identitate eta etorkizun hori mantentzen du?
Nik uste horrela izan beharko luke, esperientziak hori erakusten baitu. Kluba Europan ibili zen garai haietan taldean etxeko jendea zegoen. Oreka mantentzea zaila izan daiteke, baina oso filosofia polita dela iruditzen zait eta horrela jarraitu behar duela uste dut. Nire ustez, etxeko jendea ondo zainduz gero, Bidasoak etorkizunean arrakastak lortuko ditu.

Aurrekoan Bidasoa ahalik eta egoera onean utzi nahi zenuela aipatu zenuen. Horrek taldeari diozu maitasuna adierazten du?
Bai, azken finean, nire kluba da. Niretzat Bidasoan jokatzea futbolean dabilen norbaitentzat Realean jokatzea bezalakoa izan da. Bost urteko bigarren esperientzia honetan eta harrobiko urteetan Irungo jende askorekin jokatu eta haietatik ikasteko aukera izan dut.

Gaur egun pibote lana Julen Aginagalderekin partekatzen duzu?
Bai, aspalditik ezaguna dut. Kadete nintzenean eta jubenilekin jokatzen nuenean Julen jada Bidasoan zegoen. Orduan niretzat izugarrizko jokalaria zen, beraz, oso urte polita izan da berarekin azken urte hau partekatu ahal izatea.

Egun oraindik harrobian klubeko lehen taldera iristeko ilusioa lantzen dela uste duzu?
Bai, noski. Azkeneko hiru urteetan bide horretan pausu handiak eman direla uste dut. Egun, klubaren lehen eta bigarren taldearen artean dabiltzan bospasei jokalari daude eta uste dut atzetik gehiago etorriko direla. Bigarren taldeak lehenengo nazionalera igotzeko helburua du eta lorpena klubarentzat garrantzitsua izango litzatekeela uste dut.

Zein mezu bidaliko zenieke zaleei klubaz agurtzeko?
Mezu laburra izango da. Eskerrak eman nahiko nizkieke, Bidasoan nire lehen eta bigarren aroetan ondo zaindu nautelako. Uste dut hemendik aurrera Irundik ikusiko garela, Irun nire etxea balitz bezala maite dudalako.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak kirol arloko arazo juridikoak aztertu ditu

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, Kirol Batzordearen bidez, kirol arloko mugaz gaindiko arazoei buruzko txosten juridikoa eguneratu du. Txostena duela hamar urte sortu zen eta tresna erabilgarria da kirolean mugaz gaindiko arazoak konpontzeko.

Txostenak nazionalitatea dela-eta kirol-jarduera gauzatzeko federazioen araudiak ezarritako trabak gutxitu nahi ditu. Hau da, txapelketa nazionaletan EBko beste estatuetako herritarrek parte hartzeko ezarritako mugak aztertzen dira txostenean. Izan ere, oztopo administratibo eta burokratiko ugari sartzen dira tartean, parte-hartzea zuzenean eragozten duten klausula edo baldintzak dituzten araudi asko daude eta. Arazo kirol federatuan, amateurrean zein afizionatuen txapelketetan gerta daitezke, baina, batez ere, kirol amateurrean, saskibaloian eta futbolean.

Txingudi badiaren mugaz gaindiko egoera kontuan hartuta, egoerak eskualdeko kirolariei modu nabarmenean eragiten die. Traba zerrenda luzeak Europa kirolaren bidez integratzeko prozesua oztopatzen du, europar guztiak Europako herritarren oinarrizko eskubideak urratzeaz gainera.

Esaterako, futbolaren kasuan adibide garbia da FIFAK eta, beraz, Espainiako Futboleko Errege Federazioak (RFEF) Espainian bizi ez diren adingabeak Espainiako kluben lehiaketan inskribatzeko eskatzen duten dokumentazio zerrenda luzea, nazionalitate espainiarra izan ala ez. Zerrenda, besteak beste, dokumentu hauek eskatzen dira: gurasoen kontratua eta Espainiako sostengu ekonomikoko dokumentazioa, Espainian erroldatzeko betebeharra, lan-baimena, etab.

Pertsona eta erakundeentzako tresna
Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak aurkeztutako azterketa juridikoa tresna lagungarria da kirola mugaz gaindi praktikatzen duten kirolari zein entitateei erantzunak eta irtenbideak emateko. Partzuergoak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, duela 10 urtetik zerbitzu juridikoa eskaintzen die kirol-klubei. Zehazki, esparru horretan egindako aurreko txostenak Hondarribia Saskibaloi edo Les Eglantins de fútbol elkartearentzat Irungo Stadium Gal futbol zelaian Frantziako kopako kanporaketa jokatu ahal izateko egin ziren.

Txostenaren ondorioak
Txostenean argitaratutako ondorioen arabera federazioek Espainiako Konstituzioan jasotako lege eta itunetara egokitu behar dute, salbuespenik gabe. Era berean, Europar Batasuneko kide diren herrialdeen kirol-esparrua nazioarteko lege eta itunetan eta EBko Itunetan (EBT, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna) eta Europar Batasuneko zuzenbidean oinarrituta dago. Beraz, kirolari afizionatuek eta kirol ekintza guztiek Batasunaren Tratatuetako Printzipio, Eskubide eta Determinazioak bete beharko dituzte.

Horrenbestez, Kirol Federazioek eta eskumenak dituzten beste kirol erakunde batzuek kontzientzia hartu behar dute Europar Batasunaren esparruaz, Europako integrazio-prozesuaz, Europako Herritartasuna eratu eta onartzeaz, eta Batasuneko herritarrei dagozkien eskubideez. Horretan oinarrituta, beharrezko aldaketak egin behar dituzte kasuan kasuko federazio-araudietan, kirol-kidego juridiko bat eraikitzeko, antolamendu juridikoarekin eta Europar Batasuneko herritarrei onartutako eskubide eta askatasunekin bat datorrena.

Izan ere, Europar Parlamentuak aitortzen duenez, "kirolak Batasunaren helburu estrategikoak lortzen laguntzen du, oinarrizko balio pedagogikoak eta kulturalak nabarmentzen ditu eta integrazio bektorea da, herritar guztiei zuzentzen zaien neurrian, edozein dela ere haien sexua, jatorri etnikoa, erlijioa, adina, nazionalitatea, gizarte egoera edo sexu orientazioa".

Txostena gizarteratzea
Informazio hau zabaltzeko eta gizarteratzeko, Patzuergoa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lanean ari da, kirolaren arloan eskumena duen erakundea da eta. Bestetik, 47 klubi informazio zuzenean bidali zaie, eta kirolarekin zerikusia duten hainbat erakunderekin lanean jarraitzea espero da informazioa zabaltzen jarraitzeko. Gainera, txosten juridikoaren laburpena Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren webgunean partekatu da, interesa duen orok eskura izan dezan.

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkezten.

Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu Inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozialeko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Horixe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan. Lan merkatuan sartzeko eta finkatzeko zailtasun gehien duten pertsonei kalitatezko enplegua, enplegu duina, inklusiboa eskaintzeko sistema garatu behar dugu", adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana

Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz programaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat egin ez. "COVID-19ak eragindako krisialdi sozialari aurre egiteko palanka izango da, batetik, eta epe ertainera begira, berriz, gizarte desberdintasunei mugak jartzeko tresna partekatua", aurreratu du diputatu nagusiak. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak.

Estrategia zabal eta partekatu honen bitartez, erakunde, garapen agentzia, enpresa eta eragileekin elkarlanean, datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kroniko bihurtzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonez gain, prestakuntza baxua dutenak, langabezian kroniko bihurtu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioi euroko dirulaguntza deialdia onartu berri dela aurreratu du diputatu nagusiak. Deialdi garrantzitsu honek igoera nabarmena izango du (%250ekoa); izan ere, 2020ko deialdian 1,2 milioiko zuzkidura izan baitzuen.

Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategiak hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera. Lehenik, lanean diharduten erakundeen eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzako gobernantza eredu bat garatuz. Dagoeneko abian da estrategiaren zabalkundea gidatuko duen mahai instituzionala eta hurrengo pausoa izango da gizarte eta ekonomia alorreko eragileak batuko dituen mahaia osatzea.

Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu Elkar Ekin Lanean Estrategiak. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da, dagoeneko abian daudenen jarduera sendotzeaz gain. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonek aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, dirulaguntzak, gizarteratze enpresa berrien sorrera, informazio sistema adimenduna, txertatze soziolaboraleko gune berezia eta halako egitasmoak sustatuko dira.

Neurri horien guztien inpaktu gisa, hiru urtean 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagunen formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

HIRU URTEAN 36,6 MILIOI EURO BIDERATZEA AURREIKUSI DU GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK

Elkar Ekinen onuradunak

CAROLINA
KALEXKA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalexkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatu nuen; pozarren".

JOSEPH
SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daroatzat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPAra, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra bola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

JUAN ANTONIO
EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogoa eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea...".

VANESA
EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorrak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".

Ingelesa ikasi nahi duzu?
WELCOME School of English
- Cambridge azterketen prestakuntza emaitza paregabeekin.
- Metodologia dinamikoa eta eraginkorra.
- Irakasle natiboak.
- Prezio erakargarriak.
- Teknologia berrien erabilera.
- EEBBtan eta Irlandan udako egonaldiak.
943 61 30 61
Gipuzkoa hiribidea, 2. zbk -1 eskubi. IRUN
welcome@welcomeshool.es

IRUNGO LA SALLE LH2

Elur barra

Kaixo kaguroK lantzen aritu garen Magia ala Zientzia proiektuan egin dugun esperimentuetako bat erakutsi nahi dizuegu

Hau da behar dugun materiala:
Plater bat
Bikarbonatoa
Ile moldatzailea

Ondoren nola egiten den ikusiko duzue.

Bost goilaradda bikarbonato jarri platerean eta gainean goilaradda bat ile moldatzaile bota ondo nahastu eta bortuko dugu elur beroa.

Denbora-pasak

7 hitz: Ogibideak

F	R	R	H	B	P	V	B	Z	O	K	I	N	F
L	Q	Q	X	N	H	A	R	A	K	I	N	U	N
C	H	S	J	L	Y	X	H	G	G	B	R	G	L
Z	C	U	F	H	U	F	Y	L	B	X	P	P	W
U	Y	F	K	L	U	U	X	D	U	D	I	J	N
R	S	F	O	M	F	I	D	A	Z	L	E	W	K
G	K	U	I	G	E	L	T	S	E	R	O	W	E
I	L	V	K	D	Z	F	D	X	A	T	Q	V	E
N	B	I	S	A	J	H	C	K	N	G	V	P	Y
U	R	F	T	N	L	J	O	S	T	U	N	E	M
X	Y	L	Z	R	L	D	W	X	A	C	H	B	H
G	Q	S	W	Y	C	J	A	R	Q	V	G	A	K
C	Z	B	M	S	H	N	G	R	Q	A	Z	M	K
Q	A	B	T	U	L	I	C	L	I	G	A	U	U

Zurgin, igeltsero, sukaldari, harakin, okin, idazle, jostun.

	4	2						
			5	6				9
		9	8	2	1	7	6	
8	9	4						2
		7						6
				7		9	1	8
	5		6	4				
		8		3			5	
9		6				8		

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Maiatza ederra dago

Maiatza ederra dago
goizetan intzetan,
ez geiegi fiyatu
mutillen itzetan.

Fiyaten bazerate
mutillen itzetan,
geldittuko zerate
Eternidadetan.

Amonak ogiya kolkotikan
attonak ardua zatotikan,
eran mutillak gogotikan
baziok berdiñ ontatikan.

Mendeluko Jose Julian Marfull Arretxe, 10 urteko haurrari jasoa (1960-V-11). (El Bidasoa, 1959-VI-6). Bere ama Mendeluarrari ikasi zizkion. (El Bidasoa, 1960-v-21).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

LEKAENEA LH6

Hiriko gazteen proposamenak entzuteko eta zabaltzeko helburua du Konekta zerbitzuak

Maite Tolosa eta Jon Arteaga Konekta zerbitzuko koordinatzaileak dira. Irungo Udalaren eta hiriko gazteriaren arteko zubi lana egiteko sortu zen zerbitzua. Maitek eta Jonek gazteen ideiak eta iritziak jasotzen dituzte, gazteen proposamenei forma emateko. Konekta zerbitzuak antolatutako ekintza guztiak GazteArteanen sare sozialen bitartez zabaltzen dira.

Zein da Konekta zerbitzuaren helburua?
Maite: Konekta zerbitzua orain dela 3 urte sortu zen, Irungo 16 eta 30 urte arteko gazteek Irungo Udaletik antolatutako ekintzetan parte hartzen ez zutela ikusi ostean. Zerbitzua martxan jartzeko boluntariotza zerbitzuko pertsona bat eta Gazte Lokaletan lan egiten zuen beste pertsona bat elkartu zituzten. Urteek aurrera egin ahala, zerbitzua egonkortzea lortu da. Proiektu bizia da, errealitate ugarietara egokitzeko gaitasuna duena. Konekta zerbitzuak Irungo Udalaren eta hiriko gazteen arteko zubi lana egiten du, gazteen ahotsa entzun ondoren, jasotako ideiak udalera eramateko.

Zuek gazteak izanda errazagoa zaizue bitartekaritza lan hori egitea?
Maite: Gu geu gazteak garenez gazteen ikuspuntua ulertzea errazagoa zaigu, guk geuk gazteriaren nahiak eta beharrak identifikatzen ditugulako.

Jon: Nik neuk denbora gutxi daramat Konekta zerbitzuan lanean. Orain dela gutxi arte zerbitzuaren erabiltzaile nintzen, beraz, oso ondo ezagutzen dut beste aldean dagoen errealitatea. Zerbitzutik antolatutako ekintzetan parte hartu dut eta arduradunak gazteak izatea lagungarria da. Gure asmoa gazteen beharrak asetzea da.

Pandemiak baldintzatutako garai hauetan, zerbitzua egokitzea beharrezkoa izan da?
Maite: Aurreko urtean COVID-19aren osasun krisialdiaren ondorioz zerbitzua eten behar izan genuen. Konfinamenduaren ostean gazteekin topaketa bat antolatu genuen haiek entzun eta egoerari nola aurre egin pentsatzeko. Dena den, jarduerak antolatzen jarraitzeko modua topatu dugu, betiere, indarrean dauden segurtasun neurri guztiak errespetatuz.

Jon: Orain udako ekintzak antolatzen ari gara eta jarduerak prestatzerakoan murriztapenak kontuan hartu behar ditugu: maskararen etengabeko erabilera, edukiera murriztuak, espazio zabal eta aireztatuak aukeratzea eta abar.

> **“Konekta zerbitzuak Irungo Udalaren eta hiriko gazteen arteko zubi lana egiten du”**
>
> Maite Tolosa, Konekta zerbitzuko arduraduna

> **“Gure sare sozialak jarraitzen badituzue, bertan informazio gaurkotua topatuko duzue”**
>
> Jon Arteaga, Konekta zerbitzuko arduraduna

Gazteek haien ahotsa entzutea eskertzen dute?
Maite: Bai, Konekta zerbitzuko erabiltzaileak gutxi izan arren, haien iritziak entzutea asko eskertzen dute. Ahalik eta gazte gehienengana iristeko ahalegin handia egiten dugu, baina Irun hiri handia izanik, zaila da gazte guztiengana iristea. Gutxi batzuengana behintzat iristea lortzen badugu, gu pozik gaude.

Jon: Gaur egun gure erronka handienetako bat irisgarritasuna da. Gazteek zerbitzu bat eskura dute, baina gutxik dute horren berri. Hala ere, ezagutzen dutenek pozik erabiltzen dutela esango nuke.

Zein baliabide erabiltzen dituzue gazteen ahotsak entzuteko?
Maite: Batez ere sare sozialen bitartez mugitzen gara eta @Gazteartean_irun kontuan antolatutako ekintza eta bileren berri ematen dugu. Horretaz gain, konekta@irun.org posta elektronikora idatzi edo 656 794 372 telefono-zenbakira deitzeko aukera eskaintzen dugu. Aurretiko hitzorduekin lan egiten dugu.

Jon: Bestetik, noizean behin Gazte Topaketak antolatzen ditugu. Adibidez, apirilaren 29an Palmera Montero gunean topaketa bat antolatu genuen udako ekintzak prestatu aurretik gazteen proposamenak entzuteko. Topaketetan parte hartzen duten guztien iritzia kontuan hartzen da, nahiz eta gero ideiak aurrekontura eta eskura dauzkagun baliabideetara egokitu behar ditugu.

Zeintzuk izan dira Konekta zerbitzuan berriki antolatutako ekintzak?
Maite: Neguan hirian zehar Scape Room ireki bat egin genuen. Ondoren, zabor bilketa eta errealitateari egokitutako Among Us bideo-jokoaren moldaketa bat sortu genuen. Bestetik, Asexora-T zerbitzuaren bitartez sexologiarekin loturiko jolasa prestatu genuen. Artisten merkatu izan da zerbitzutik antolatutako azken ekintzetako bat. Beraz, ekintza ugari dira, eta gazteen proposamenak aurrera ateratzeko ahal izan dugun guztia egin dugu.

Martxan dagoen beste proiektuetako batek Ostiraletan izena du. Zertan datza?
Maite: Ostiraletan Gaztelekuko langileekin elkarlanean sortutako proiektua da. Bi zerbitzuak elkartzeko asmoarekin Gaztelekuaren barruan espazio bat sortu da Irungo gazteek elkar ezagutu, hitz egin eta jolasteko aukera izan dezaten. Ekimenak arrakasta izan duela dirudi.

Irungo gazteen ahotsa entzunda, zeintzuk dira egun hiriko gazteek gehien errepikatzen dituzten eskakizunak?
Jon: Gazteek hirian ekintzak antolatzea eskatzen dute. Izan ere, aurretik gazteentzat pentsatutako ekintza gutxiago antolatzen ziren eta guk joera hori apurtu nahi dugu. Hortaz, Irungo gaztedia gauzak egiteko prest ikusten dugu eta gazteek udalak jarduera berriak antolatzea nahi dute.

Maite: Horrekin batera, hirian haientzako espazioak behar dituzte. Egoera horren erakusle garbia da orain dela urte gutxira arte San Pedro eta San Martzial jaietako egitarauan gazteentzat bereziki antolatutako ekintzen urritasuna. Azken urteetan, ordea, zorionez hutsune hori betetzea lortu da, haur zein helduentzako ekintzez gainera, jaietako egitaraura gazteentzako ekintzak gehituz .

Zeintzuk dira Konekta zerbitzutik antolatu nahiko zenituzketen hurrengo jarduerak?
Maite: Gazteen proposamenak aurrera eramaten jarraitu nahi dugu. Azken urte hauek nahiko gogor eta bereziak izan dira gazteontzat, beraz, askatasun sentsazioa emango diguten ekintzak behar ditugu. Ahala den heinean, gazteek uda “normal” bat izatea nahiko genuke, arnasa behar dugu eta.

Jon: Laster beste topaketa bat antolatuko dugu aurreko bileran bildutako ideiei forma eman ahal izateko. Topaketaren data zehazteko dago oraindik, baina gure sare sozialak jarraitzen badituzue, bertan informazio gaurkotua topatuko duzue.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

KZgunearen zuzeneko hitzaldiak

KZgunean zuzeneko hitzaldiekin jarraitzen dugu YouTube KZguneaTIC kanalaren bidez. Astero IKTei buruzko 30 minutuko hitzaldi berriak izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

Gure zuzeneko hitzaldietan parte hartzeko interesa duten pertsonek Interneterako konexioa soilik behar dute, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita, aurretiazko sarrerarik gabe. Gainera, hitzaldi guztiak YouTubeko kanalean gordeko dira.

EKAINA

1. astea: Mugikorraren erabilera kontrolatzeko aplikazioak

- Ekainak 1, 12:00etatik 12:30etara, euskaraz.

2. astea: Telegramen aukera guztien aurkezpena

- Ekainak 8, 19:00etatik 19:30etara , euskaraz.

3. astea: Google Lens. Gure kamerarekin bilatu

- Ekainak 15, 12:00etatik 12:30etara , euskaraz.

Deskargatu gure App-a eta eraman gaitzazu beti zure smartphone edo tabletean, eta gure zerbitzu nagusiak edonon eta noiznahi eskura izango dituzu.

kz gunea

Ikastaroa: "Drogen arrisku murrizketa"

- Informazio eguneratuaz eta fidagarriaz baliatuz, gaur egun gure erkidegoko gazteek dituzten kontsumitzeko modua aztertu.

- Prebentzio eragingarria lortzeko oinarrizko irizpideen berri izan.

Nori zuzenduta: Gazteekin lan egiten duten profesionalei.

Egunak: Ekainaren 16 eta 17an.

Ordua: 10:00 - 13:00.

Lekua: Palmera Montero Gunean (5. aretoa).

Izen emateak: Irune Hernandez - ihernandez.bsocial@irun.org - 943 50 53 66.

Taldea: Komunikazioak duen indarra

Ikastaro honen bitartez gazte-talde informal eta formalen barne-komunikazioa hobetu nahi da, talde horien kohesioa hobetuz eta eraginkortasuna areagotuz.

Datak: Ekainaren 9, 16 eta 23an.

Ordua: 17:00-20:00.

Formatua: Aurrez aurre eta online.

Izena emateko epea: Ekainak 6.

Adina: 18-30 urte.

Ikastaroa emango du: Asier Gallastegi.

Nerabezaroko sexualitateari buruz jakin beharrekoak

Asexora-T zerbitzuak "Nerabezaroko sexualitateari buruz jakin beharrekoak" tailerra antolatu du.

Tailerra ekainaren 5ean, larunbatean, egingo da Palmera Montero guneko 2. aretoan. Tailerra goizeko 11:00etan hasi eta 13:30etan amaituko da. Tailerrean parte hartu ahal izateko maiatzaren 28tik ekainaren 2ra Irungo Udalaren webgunean izen-ematea egin beharko da.

Norentzat? Tailerra nerabeen guraso eta tutoreentzat zuzenduta dago.

Gazteak Auzolanean

Talde-egitasmo bat garatu nahi duzu?

18 eta 30 urte arteko gazteek, gutxienez 3 pertsonek osaturiko taldeek parte har dezakete. Horiek proiektu bat gauzatzea proposatu beharko dute, baina ez dira elkarte edo enpresa gisa eraturik izango eta, hortaz, ez dute nortasun juridikorik izango.

a. Proiektu artistikoak edo/eta kultural komunitarioak.

b. Ingurunearen zaintza eta jasangarritasuna oinarri duten proiektuak.

c. Genero berdintasuna, euskara, kulturartekotasuna, elkartasuna eta beste alorretan oinarritutako gizarte edo komunitatearen eraberritze proiektuak.

Epea: 2021eko ekainaren 14ra arte.

Ekainak

3

Bidasoako Langile Autodefentsa Sarea

Zer: "Autodefentsa laborala eta etorkizuneko erronkak" aurkezpena, Kontseilu Sozialista Bidasoaren eskutik.

Non: Palmera Montero gunean.

Ordua: 19:00etan.

Oharra: Itzultzailea egongo da.

4tik 6ra

Bioterra

Zer: Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren Euskadiko azoka.

Non: Ficoban.

Ordutegia: Goizeko 10:00etatik 20:00etara.

Sarrera: Doan.

Oharra: Zenbait jardueratan parte hartzeko aurretiaz azokaren webgunean izen-ematea egin beharko da.

5

Antzerkia

Zer: Sisiforen Paperak antzezlanak kazetaritzari omenaldia egingo dio, modu bidegabean itxiarazi dituzten hedabide guztiei eskainia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 9,50 euro - 15 euro.

Sarrerak: Internet bidez, turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 100 minutu.

6ra arte

Erakusketa

Zer: "Ruiz de Eguino, bat eta askotarikoa" erakusketa.

Non: Menchu Gal aretoan.

Ordutegia: Ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara; igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30etara.

Sarrera: Doakoa.

12

Antzerkia

Zer: "La extraña pareja" antzezlana eskainiko du Calibán Teatro konpainiak.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan**.**

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan eta antzokiko lehiatilan emanaldiaren egunean bertan.

19

Antzerkia

Zer: B vocal taldearen ikuskizun berria: musikan, ahotsean, antzerkian, umorean, genero musikalean... barrena egiteko ibilaldi bikain eta dibertigarria da.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo-bulegoan edo antzokiko lehiatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak

F	R	R	H	B	P	V	B	Z
L	Q	Q	X	N	H	A	R	A
C	H	S	J	L	Y	X	H	G
Z	C	U	F	H	U	F	Y	L
U	Y	F	K	L	U	U	X	D
R	S	F	O	M	F	I	D	A
G	K	U	I	G	E	L	T	S
I	L	V	K	D	Z	F	D	X
N	B	I	S	A	J	H	C	K
U	R	F	T	N	L	J	O	S
X	Y	L	Z	R	L	D	W	X
G	Q	S	W	Y	C	J	A	R
C	Z	B	M	S	H	N	G	R
Q	A	B	T	U	L	I	C	L

K	I	N	F
A	K	I	N
B	R	G	L
G	B	P	W
D	U	D	J
Z	L	E	K
E	R	O	E
T	Q	V	E
N	G	V	P
T	U	N	M
A	C	H	B
Q	V	G	A
A	Z	M	K
G	A	U	U

6	4	2	7	9	3	1	8	5
7	8	1	5	6	4	3	2	9
5	3	9	8	2	1	7	6	4
8	9	4	3	1	6	5	7	2
2	1	7	9	8	5	4	3	6
3	6	5	4	7	2	9	1	8
1	5	3	6	4	8	2	9	7
4	7	8	2	3	9	6	5	1
9	2	6	1	5	7	8	4	3

Estudio Goverretik sektore profesionalera zuzendutako argazkilaritza digitaleko marka berria aurkezten dugu.

Katalogo, webgune, sare sozial eta "take away" zerbitzua eskaintzen duten enpresentzako argazkiak egiten ditugu.

ZURE ENPRESAREN IRUDIAK GARRANTZI HANDIA DU.

Bisitatu gure webgunea!
www.fdefoto.es

360°

-GASTRONOMIKOA
-PRODUKTUAK
-KATALOGOAK
-PUBLIZITARIOA
-EKITALDIAK
-INMOBILIARIAK
-KORPORATIBOA
-2D 360º-NOBEDADEA!

fdefōto

LETXUNBORRO HIRIB. 100 , 2ºA
20305 IRUN - GIPUZKOA -
hola@fdefoto.es
fdetofo.es
943 840 113 - 647 930 484